

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gu Naturtekaberri enpresa gara eta familientzako aisialdi gune bat sortu dugu. Lanaren atal honetan, beste elkarte batzuegandik bereizten gaituena eta proiektu honetako indarguneak azalduko ditugu. Guk badakigu aisialdi elkarte asko daudela, baina elkarte horiek normalean haurrentzako soilik bideratuta daude. Gurean berriz, haurren eta familien arteko harremana sustatu nahi dugu eta horretarako, ekintza batzuk egingo ditugu; batzuetan haurrentzako ekintzak izango dira bakarrik eta beste batzuetan haur eta familien arteko ekintzak. Generoaren aldetik, ez dugu bereizketarik egingo, hau da, berdintasuna sustatzen dugu gure enpresan. Gai hau haurrekin lantzea oso garrantzitsua dela uste dugulako eta horregatik batzuetan ekintza desberdinak egingo ditugu, adibidez, ipuin kontaketak eta antzerki desberdinak eginez. Horrez gain taldeak egiterako orduan ez ditugu genero aldetik bereiziko, begiratuko ezta desberdinduko.

Guk eskaintzen dugun zerbitzua, alde batetik, 0-12 urte bitarteko haurrentzat izango da. Astero, elkartean, bi eguneko klaseak emango ditugu, astearte eta ostegunetan. Asteburuetan ere bai bertan egongo gara, aisialdi elkarte moduan. Horrez gain, hilabetean behin, irteerak eta asteburu pasak egingo ditugu denon artean. Ekintza horietan, gure helburua, elkarrekiko konbibilitatea desberdinak lantzea eta hurrek bere eta beste familiakoekin bizipen desberdinak izatea da. Beste aldetik, haurrak errealitatearekin bat egiteko, ikastetxeek eskaintzen ez dietena eskaini nahi diegu giro desberdin batean. Adibidez, tailerrak, irteerak, jolasak, hitzaldiak etab. egiten. Dena den, haurrak dituzten urteak kontuan hartuz, jarduera bat edo beste bat egingo dugu, haien beharren eta gaitasunen arabera.

Bukatzeko, gure helburu nagusia, haurren ongizatea da, horrez gain, goian aipatu dugun moduan, familien parte hartzea ekintza batzuetan bermatuko dugu. Haurren eta familien arteko harremana sendotzeko eta beste aisialdi elkarteetan familiak nahiko baztertuta daudelako beraien hurrekiko. Baita ere, besteengandik desberdindu gaituena, aisialdi zerbitzuan familiak parte hartuko duela, hau da, haiekin denbora gehiago pasatzeko da.

COVID-19-a dela eta gure proiektua aurrera joango da, baina honen egoera kontuan izanik, moldaketa batzuk jasango ditu aisialdi elkarteak, hala nola; talde murriztuak, egun desberdinetan ekintzak egitea, maskararen erabilera derrigorrezkoa, gel-hidroalkoholikoaren erabilera... Beti ere, familia guztien ongizatea bermatu izan nahi dugu eta ez dugu nahi

COVID-aren eraginez gure elkartean dauden familiak gaixotzea edota arazoren bat izatea gure erruz.

Baina, COVID-aren pandemia lasaitzen edota pasatzen denean, moldatu izan genituen jarduerak, betiko moduan jardungo ditugu, ez ditugu talde murriztuak izango, aldaketa baldin bada, maskararen erabilera ez dela derrigorrezkoa, ez da erabili behar izango.... Eta lehen esan bezala, familia guztien zaintza izatea nahi dugu.